



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko uztailaren 24a

66. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F S A I L A:

#### Galderak:

- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba al dakien Errioxako Gobernuak industrialde bat eraikitzeko asmoa duela Las Cañasko aintziratik gertu. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, sai zuriaren desagertzeko arrisku-egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, 1993 geroztik Nafarroako ibaietako arroetan eginiko amuarrain arruntaren –arrainkumeak eta arrabak– birpopulatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, minbizia duten pertsonen diagnosi eta tratamendurako zirkuitu azkarrari buruzkoa, Iruñean eta Nafarroako beste eskualde batzuetan. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, jakiteko Sarrigurengo osasun etxea eraikitzeko proiekturik esleitu zen, gaur egungo proiektua esleitu aurretik. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroak Tolosa Okzitaniako Turismo Azokan eta Bordeleko Turismo Erakusketan izan duen parte-hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoko zuzendari titularraren kontratuaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeko lanen aurrekontuari eta amaierako kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartu behar dituen nazioarteko ikasle-trukeak sustatzeko goi mailako musika-irakaskuntzaren arloan. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroan musika ikasketen beharrezanean erantzuteko organigrama egokitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroan noiz garatuko den musikako goi mailako ikasketen curriculum. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko zer egin behar duen Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan musikako goi mailako ikasketak ezartzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakiteko zer departamentuk sustatu duen Nafarroako nazioarteko plana. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Kutzaren arteko lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa, Nafarroaren Egunaren ospakizunen kariatara antolatu ziren Gazteen Jaialdia eta Haurren Jaialdia direla eta. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Aresoko udalerrian gatz-siloen parean dagoen informazio-panela euskaraz ez jartzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Uxueko hirigunetik gertu dauden lursailak Uxueko errepidea eraikitzean egiten diren zelaitze-lanetatik datorren lurrarekin betetzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak duen asmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, teleordainketa sistemak ezartzearekin eta Audenasak Nafarroako Kutzarekin eta Nafarroako Rural Kutzarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, “Erregistro Zibila linean” izeneko programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeako proiektua berregokitzearen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, balizko generoen berdintasun plana abian jartzeko dagoen aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko. Lanpostu horietako batek betekizun gisa du euskara jakitea (24. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba al dakien Errioxako Gobernuak industrialde bat eraikitzeke asmoa duela Las Cañasko aintziratik gertu.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak ba al dakien Errioxako Gobernuak industrialde bat eraikitzeke asmoa duela Las Cañasko aintziratik gertu.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ba ote dakien Errioxako Gobernuak industrialde bat eraikitzeke asmoa duela Las Cañasko aintziratik gertu. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Ba al daki Nafarroako Gobernuak Errioxako Gobernuak industrialde bat eraikitzen ari dela Las Cañasko aintziratik gertu, zeina natur erreserba deklaratu baitzen 1987an?

Industrialdeari buruz jaso den berri ofizial bakarra izan da Ebroko Konfederazio Hidrografikoa igorritako idazki baten bitartez, 2008ko urtarrilaren 25ean. Bertan, informazioa eskatzen zen Las Cañasen dagoen Naval ibaiaren ubideratzeari buruz, industrialdearen hustubiderako kolektore izan zedin. Informazio hori Acciona Infraestructuras enpresak eskatu zuen.

Aztertu al ditu Nafarroako Gobernuak industrialde horrek ingurumen arloan izan ditzakeen eraginak?

Konfederazioari igorritako txostenean honakoa proposatu zaio: babestutako eremuaren gertutasuna dela-eta, lehenik eta behin kontuan hartu beharko litzakete egokia ote den proiektu horren ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egitea, proiektu horrek izan lezakeen eragina aztertzeke; halaber, gauza bera egin beharko litzateke ondoan dagoen eremu babestuan gerora egin litezkeen industrialde edo urbanizazio berriei dagokienez.

Jakina, industrialdea Errioxan dagoenez, Errioxako Gobernuari dagokio ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egitea, eta hori izapidetzeke fasean dagoenean departamentuak bere iritzia azalduko du.

Egin al du zuzemenik Errioxako Gobernuarekin jakiteko ingurumen-eraginaren arloko araudiak betetzen ari ote diren?

Modu ofiziosoan industrialdearen berri izanik, Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusiak gutun bat bidali zion horren sustatzaileari, Logroñoeko Udalariri, eta eskatu zion ebalua zezan zein izanen zen industrialdeak babestutako espazioan izanen zuen eragina. Oraindik ez da gai horri buruzko erantzun ofizialik jaso.

Halaber, harremanetan izan gara Errioxako Gobernuko Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza Nagusiarekin, helburu berarekin.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## Galdera, sai zuriaren desagertzeko arrisku-egoerari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du sai zuriaren desagertzeko arrisku-egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellanak galdera egin du sai zuriaren desagertzeko arrisku-egoerari buruz. Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emandako informazioa:

1.- Ingurumen Departamentuak ba al du sai zuria desagertzeko arriskuaren berri?

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak badaki zein den sai zuriaren egoera Nafarroako Foru Komunitatean, bere eskumenen artean baitago espeziei jarraipena egitea. Berez, departamentu honexek agindu zien Doñanako Biologia Zentroko adituei informa zezaten sai zuriaren populazioak Errege Bardean zuen tamainari buruz eta haien ugalketak zuen arrakastari buruz.

Txosten horretatik, eta departamentu honetako teknikariek darabilten gainerako informaziotik ere, ondokoa ondoriozta daiteke: espeziearen egoerak erakusten du zantzu batzuk daudela pentsatzeko sai zuriaren populazioak behera egin duela, eremu batzuetan bederen.

Urritze hori benetan kezagarria da, nahiz eta hori eragin duten kausak ez diren argiak; izan ere, beheranzko joera hori desberdina izan da eremuen arabera. Penintsulan, eta Mediterraneo inguruko lurralde batzuetan ere bai (esaterako, Italian eta Portugalen), sai zuriaren espeziea nabarmen murrizten ari da (Espainiako lurraldeen %25 inguruan galdu egin da, 1987 eta 2000 bitartean), eta dirudienez, fenomeno hori bereziki ikus daiteke Ebroko haranean.

Espezie horrek eremu batzuetan jasandako eragina handiagoa izan da beste eremu batzuetan baino, eta baliteke horren kausa tokiko eragileren

bat izatea. Eragile horien artean egon litezke, adibidez, haratustelak kentzeko agindu ezaguna, alor horretako araudia betetzeko; edo beste eragile batzuk, esaterako, produktu toxikoak edo, zenbait kasutan, pozoiak jan izana. Halaber, fenomeno hori Ebro arro osoan gertatzeko beste eragile bat da sai zuri helduak gutxi ordezkatzeko direla gazteekin, espezieak Sahara hegoaldean egin ohi duen egonaldiaren ostean. Hori espeziearen dentsitate handiagoa dagoen eremuetan ikus daiteke, eta horixe da Bardearen kasua.

Beraz, lehentasuna duen helburua da fenomeno horiek eragiten dituen kausa bereiztea, espeziearen desagerpen orokorrak hitz egin baino lehen; izan ere, egun ditugun ezagutzak kontuan izanik, baliteke termino hori egokia ez izatea.

2.- Espezie horretako zenbat bikote dagoela uste du Departamentuak?

1999-2000 aldian, habiak eginik zituen populazioaren kalkulu bat egin zen, eta 10 urteko periodikotasuna aurreikusi zen. Une hartan, 159 bikotek habiak eginik zituzten. Mota horretako erroldak 10 urtean behin egin ohi dira gutxi gorabehera, beraz 2008-2009 aldian errolda berri bat egingen da, zehazteko espezie horretako zenbat bikotek egin dituzten habiak.

Horretaz gain, ahalegin bat egin da espezieari jarraipen bat egiteko Nafarroako bi eremu zehatzetan: ipar-mendebaldean eta Bardeako eremuan. Bi eremuetan, eta 2000ko erroldei lotuta, populazioak behera egin duela detektatu da. Lehen kasuari dagokionez, 12 habi gutxiago daude (2000an 27 habi izatetik, 14ra jaitsi zen 2005ean, 11ra 2006an eta 12ra 2007an), eta Bardean egindako jarraipenaren kasuan, urritze hori sakonagoa eta etenik gabekoa izan da, eta honakoa ondorioztatu da: populazioak behera egin du pixkanaka, eta 90eko hamarkadatik egundaino populazioaren herena baino gehiago galdu da, urritze unerik nabarmenena 1999-2004 aldia izanik.

Azken azterlan horretan zenbait faktore aipatzen dira, Bardearen eremuan detektatutako urritze hori azal dezaketenak: batetik, produktibitate baxua, eta bestetik, hilkortasun-tasa handia.

3.- Departamentuak atzeman al du Bardeako beste espezie berekirik despopolatu edo desagerertzeko arriskurik?

Departamentuak ez du atzeman Bardeako beste espezie berekirik despopulatu denik, eta ez du berririk izan beste espezieen heriotzei buruz, a priori sai zuria hiltzeko kausekin loturarik izan dezaketenak.

Alabaina, adierazi behar da Bardeako untxien populazioa eskasa dela; ez du goranzko bilakaerarik izan azken urteotan, inguruko beste eremu batzuetan gertatu ez bezala –leku horietan untxi ugari daude–. Horrek eragina izan lezake, era batera edo bestera, baliabideetan, eta hein batean behintzat azal lezake ikusitako fenomenoren bat.

4.- Zer neurri jarri nahi ditu abian Gobernuak, baldin eta arazoa detektatu badu, bai saiaren bai bestelako espezieen desagertzea gerarazteko?

Sai zuria gutxitzearen zioa janari eskasia den heinean, hegazti nekrofagoentzako bazkatokiak egokitzen ari dira, espezie horri janaria bermatzeko asmoz. Izan ere, espezie horren tamaina eta baldintza fisikoak direla-eta, kostu dakiok sai arrearekin lehiatzea janaria lortzeko. Zehazki, duela gutxi abian jarri da bazkatoki bat Zarrakazte-

lun, bertan baitago Bardeako eta inguruko lurretako espeziearen etzaleku handiena.

Bestalde, sai zuria despopulatzeko kausa legez kanpoko pozoien erabilera edo substantzia toxikoen kontsumoa den heinean, protokolo batean dihardugu, Bardeako eremuan mota horretako jarduerak detektatzeko eta deusezteko, eta horretarako funtsezkoa da lurraldeko kudeatzaileen laguntza.

Departamentuak espezie horrekin egin diren jarraipen lanekin jarraituko du, baita espezie horretarako Batasunaren Intereseko Lekuen (BIL) eta Zainketa Eremu Berezien (ZEB) kudeaketa planetan zehazten direnekin.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 14an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## **Galdera, 1993 geroztik Nafarroako ibaietako arroetan eginiko amuarrain arruntaren –arrainkumeak eta arrabak– birpopulatzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du 1993 geroztik Nafarroako ibaietako arroetan eginiko amuarrain arruntaren –arrainkumeak eta arrabak– birpopulatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko martxoaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Angel Agirrebengoa jaunak

galdera egin du jakiteko zein den amuarrainaren egoera Bidasoako arroan. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.- 1993tik hona Bidasoako arroan eginiko amuarrain arruntaren –arrainkumeen eta arraben– birpopulatzeko kopurua.

1993–2007 aldian, amuarrain arruntaren (*Salmo trutta fario*) 1.923.272 arrautza enbrioiu zabaldu dira, Vibert kutxatan kokatuak. Halaber, ibaia eta bere ibaiadarrak birpopulatu dituzte udaberriko 552.277 izokinkumeekin, 6–7 zentimetroko tamainakoak. Azkenik, ibaiaren ibilgu nagusian 1.816 amuarrain heldu askatu dira, arrantzatzeko moduko tamaina zutenak. Hona horien banaketa urtez urte:

Urtea	Arrautzak guztira	Arrainkumeak guztira	Helduak guztira
1993	1.182.298	198.190	0
1994	208.787	146.943	0
2000	0	590	403
2001	0	821	506
2003	0	30.800	0
2004	93.750	40.742	607
2005	84.175	52.188	0
2006	160.551	61.020	0
2007	193.711	20.983	300
<b>Guztira</b>	<b>1.923.272</b>	<b>552.277</b>	<b>1.816</b>

2.- 1993tik hona Bidasoako arroan eginiko amuarrain arruntaren –arrainkumeen eta arraben– birpopulatze kopuru osoaren xehakatzeari, urtez urte, zehaztuta zein herritan eta zein ibai-tartetan egin ziren.

Datu-baseetan ez dira agertzen Bidasoa ibaiaren tarteei edo bere birpopulatutako ibaiadarrei dagozkien udalerrien izenak, baina bai ibaiak tarte horietan duen izena eta tarte horien muga geografikoak, eta informazio horrek zehaztasunez adierazten du kasu bakoitzean birpopulatutako gunetan gertatutakoa. Hori horrela, 1993-2007 aldian, Baztan ibaian 38.076 arrautza enbrioiu eta 65.323 arrainkume birpopulatu dira. Bidasoa ibaian, Oronoz-Mugairitik behera, ondokoak birpopulatu dira, guztira: 159.757 arrautza enbrioiu, 328.816 arrainkume eta 1.516 amuarrain heldu. Arro guztiko ibaiadarretan, Ezkurra ibaia barne, oraingo aldi honetan ondokoak birpopulatu dira: 1.676.639 arrautza enbrioiu, 154.725 arrainkume eta 300 amuarrain heldu. I. eranskinaren taulan erantsi ditugu birpopulatze fase bakoitzean birpopulatutakoen xehetasunak, urteka, ibaiak eta tarteka banatuak.

3.- Informazio honen xede diren birpopulatze horietan erabilitako amuarrain arruntaren –arrainkumeen eta arraben– jatorria.

Birpopulatze horietan erabilitako amuarrainen jatorriari dagokionez, 1993an eta 1994an birpopulatutako arrautzak eta arrainkumeak Europa erdialdetik ekarri ziren, ez dira autoktonoak. Horiek Nafarroako Gobernuak Erronkarin eta Anotzen dituen arrain-haztegietan hazten dira, eta bertan

erruteko eta arrainkumeak lortzeko prozesuak egiten dira. 2000. eta 2001. urteetan birpopulatutako arrainkume eta amuarrain helduak Bidasoa bertako amuarrain basatiak dira, ubidetik Bidasoa ibaiaren ibilgu nagusira transferitu direnak. 2003tik aurrera birpopulatutako arrabak eta arrainkumeak Bidasoakoak dira, autoktonoak, Mugairiko arrain-haztegian hazitakoak. Aldi honetako amuarrain helduak ere, 2007an Europa erdialdetik ekarritako 300 ale (triploideak) alde batera utzita, autoktonoak dira, Bidasoakoak bertakoak.

4.- Baldin eta Oronoz-Mugairiko San Francisco Javier arrain-haztegian hazitako amuarrain arruntak –arrainkumeak eta arrabak– erabili badira Nafarroan birpopulatzeak egiteko, adierazi erabilitako kopurua, zein herritan eta zein ibai-tartetan erabili ziren, 1993tik hona, urtez urte.

2. eranskineko taulan adierazi dugu Mugairiko arrain-haztegian hazitako amuarrain arruntaren kopurua eta Nafarroako zein lekutan erabili diren birpopulatzeak egiteko.

Birpopulatutako amuarrain batzuk Erronkari, Anotz eta Mugairin dauden arrain-haztegietatik ekarri dira, eta beste batzuk Bidasoa ibaian bertan eta bere ibaiadarretan jaso dira. Ale batzuk Nafarroako Gobernuaren jabetzapekoak diren arrain-haztegietan hazi dira, Europa erdialdeko ildoei jarraikiz, eta ez dira espezie autoktonoak (1977. urtetik, eremu mistoan birpopulatutako aleak triploideak dira, eta antzuak dira). Beste ale batzuk autoktonoak dira, eta horiek hazteko ildoari "Bidasoa" deritzo; hori Mugairiko arrain-haztegian sortu

zen 2000. urtean, eta helburua zen Bidasoa ibaia-  
ren erdialdeko eta behealdeko amuarrainen popu-  
lazioa berreskuratzea. Azkenik, badira amuarrain  
batzuk –arrainkumeak eta amuarrain helduak–  
lekuz aldatu direnak, Bidasoaren ibaiadarretatik  
ibilgu nagusira, 2000 eta 2001 urteetan egindako  
saiakera batzuetan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregela-  
menduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontsei-  
laria: Begoña Sanzberro Iturriria

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamenta-  
rien eskura dago 7-08/PES-00083 espedientean,  
ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

## **Galdera, minbizia duten pertsonen diagnosi eta tratamendurako zirkuitu azkarrari buruzkoa, Iruñean eta Nafarroako beste eskualde batzuetan.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du minbizia duten pertsonen diagnosi eta trata-  
mendurako zirkuitu azkarrari buruzkoa, Iruñean eta Nafarroako beste eskualde batzuetan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artiku-  
luan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,  
Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlametu-  
ko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.  
Galdera 2008ko martxoaren 7ko 23. Nafarroako  
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako  
foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak  
galdera egin du Iruñean eta Nafarroako beste  
eskualde batzuetan minbizia duten pertsonen dia-  
gnosi eta tratamendurako zirkuitu azkarrari buruz.  
Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Minbizia izatearen susmo oinarrituko per-  
tsonekin jarduteko gida, oinarritzko laguntzako eta  
laguntza espezializatuko osasun-profesionalek  
egina, gaixoak Iruñeko osasun barrutira eramate-  
ko jardunbidean txertatua dago.

2.- Gaixoak Tuterako barrutitik Nafarroako Klini-  
ka Unibertsitariora eramaten direnean, medikuen

irizpideei jarraikiz egiten da beti, eta gaixo horrek  
behar duen proba edo tratamendua Nafarroako  
Ospitaleko Onkologia Zerbitzuan ezin dela egin  
balioetsi ostean.

Reina Sofía ospitalean Onkologia Zerbitzua  
abian jarri baino lehen, 2002. urtean, ez dago  
erregistraturik gaixorik eraman zenik Nafarroako  
Klinika Unibertsitariora onkologia alorreko arrazoi-  
ak direla-eta; izan ere, gaixo horiek eramaten ziren  
Nafarroako Ospitaleko Onkologia Zerbitzura.

2007. urtean, 32 gaixo eraman ziren Nafarroa-  
ko Klinika Unibertsitariora, eta horietatik 28ri PET  
bat egin zitzaien, 3ri PAAF miaketa eta bati kon-  
sulta.

3.- Tuterako Reina Sofía ospitaleko Onkologia  
Unitateak mendekotasun organikoa dauka ospitale  
horrekin, eta mendekotasun funtzionala Nafarroa-  
ko Ospitaleko Onkologia Zerbitzuarekin.

4.- Ez da akatsik atzeman biriketako minbizia-  
ren diagnosi eta tratamendurako zirkuitu azkarre-  
an; beraz, Reina Sofía ospitalean pneumologorik  
ez egoteak ez du eraginik zentzu horretan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Errege-  
lamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 25ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## Galdera, jakiteko Sarrigurengo osasun etxea eraikitzeko proiekturik esleitu zen, gaur egungo proiektua esleitu aurretik.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du jakiteko Sarrigurengo osasun etxea eraikitzeko proiekturik esleitu zen, gaur egungo proiektua esleitu aurretik.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko martxoaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde

andreak galdera egin du jakiteko Sarrigurengo osasun-etxea eraikitzeko proiekturik esleitu den, gaur egungo proiektua esleitu aurretik. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Nasuinsa enpresari (Navarra de Suelo Industrial, S.A.) bidali zion Sarrigurenen osasun-etxe berri bat eraikitzeko beharrei buruzko plana (kopia erantsi dugu).

Enpresa hori arduratu da gainerako jarduerak aurrera eramateaz.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 25ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcelly

- Adimen-osasuneko Etxea:

Proposatzen da gordetzea 700 metro koadro inguruko espazioa.

- Emakumeentzako laguntza zentroak

Medikuaren kontsulta	2	20 m	40 m
Erizaina/amaginaren kontsulta	1	20	20
Hezitzailearen kontsulta	1	20	20
Administraziorako espazioa (1)	1	50	50
Erabilera anitzeko aretoa (2)	1	70	70
		Guztira.....	200 m

- (1) Bi postutarako espazioa eta artxiboak gordetzeko altzarietarako lekua.

- (2) 25 pertsonako taldeentzako espazioa eta biltegi txikia, koltxonetak etab. gordetzeko.

Gainerako osasun-etxeak ere erabil ditzake administraziorako espazioa eta erabilera anitzeko aretoa.

Halaber, komunak eta itxarongelak osasun-etxe osorako dira.

### OINARRIZKO LAGUNTZA (metro koadro erabilgarriak)

Laguntzarako eremua	1.167,50
Langileen eremua	182,00
Administrazioaren eremua	135,00
Biltegia/instalazioen eremua	78,00
Erabilera anitzeko eremua	50,00

Eraiki behar den azaleraren kalkulua lortzeko, azalera erabilgarria %20 handitu dugu. Beraz, emaitza ondokoa da: 1.935 m



## Galdera, Nafarroak Tolosa Okzitaniako Turismo Azokan eta Bordeleko Turismo Erakusketan izan duen parte-hartzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroak Tolosa Okzitaniako Turismo Azokan eta Bordeleko Turismo Erakusketan izan duen parte-hartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroak Tolosako Turismo Azokan eta Bordeleko Turismo Erakusketan izandako parte-hartzeari buruz. Hona Vianako Printzea Erakunde-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

#### 1.- Balorazioa.

Balorazioa positiboa da. Bi azoka horietan parte hartu ostean egin den balantzea positiboa da: Nafarroako erakustokian informazio asko eskatu zen; galderak errepikatu ziren ondokoei buruz: Errege Bardea, Uxue, Erriberri, Pirinioak, Donejakue bidea, naturan egiteko jarduerak, hegazti-behaketa, monumentuen bisitaldiak, turismo kanpalekuak, landa-ostatuak eta ostatu tradizionalak.

Bi azoketan 4.300 argitalpen banatu ziren guztira (Donejakue bidea, Nafarroari buruzko liburuxka orokorra, hegazti-behaketa, ostatu-gidak, hiri-planoak, errepede-mapak, etab.).

#### 2. - Harreman profesionalak.

Bi azoka horiek zuzenduak daude amaierako kontsumitzailearengana. Bordeleko eta Tolosako azoketan parte hartzearen helburua ez da izan harreman profesionalak egitea, baizik eta zuzenean bisitariak biltzea.

Ondokoa izan zen informazioa eskatu zutenen banaketa, adin-tarteka: helduak eta familiak, %45; gazteak, %25; jubilatuek, %20 eta ikasleak, %10.

#### 3. - Nafarroako partzuergoen eta elkarte profesionalen parte-hartzea.

Nafarroako partzuergoek eta elkarte profesionalak bi ekitaldi horietan izandako parte-hartzea dela-eta, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuak, 2008rako feriei buruzko urteko plana egin ondoren, hauxe jakinarazi zion Nafarroako turismo-sektoreari: irizpide orokor gisa, elkarte eta partzuergoek aukera dute Nafarroak bere erakustokia duen azoketara sustapen materiala bidaltzeko. Bi ekitaldi horietara sustapen materiala bidaltzeko eskaria ondokoek egin zuten: Nafarroako Erdialdeko Turismo Elkarteak, Erriberako Landa Etxeen Elkarteak eta "Lagunartea" Nafarroako Aterpetxeen Elkarteak.

#### 4. - Zer gastu eragin duen Tolosako Turismo Azokan eta Bordeleko Turismo Erakusketan parte hartzeak.

AZOKA	KONTZEPTUA	GASTUA	ENPRESA
BORDELE	Feria-esparruan espazioa kontratatzea eta modulu bidezko erakustokia alokatzea (dekorazioa, derrigorrezko aseguru eta elektrizitatea barne)	9.097,97	Expogestion FR77307217953
	Erakustokian arreta emateko langileak kontratatzea	1.302,94	Eukene Moso Elizari
TOLOSA	Feria-esparruan espazioa kontratatzea eta modulu bidezko erakustokia alokatzea (dekorazioa, derrigorrezko aseguru eta elektrizitatea barne)	9.097,97	Expogestion FR77307217953
	Erakustokian arreta emateko langileak kontratatzea	1.194,80	Eukene Moso Elizari
<b>GUZTIRA</b>		<b>20.693,68 euro</b>	

Bi azoketan parte hartzearen ondorioz izandako gastuak ondoko kontusailean sartu dira: A10002 A1200 2269 432100 "AZOKETARA JOATEA" izenekoan (18.195,94 euro erabili ziren 2007ko gastuen aurrekontutik, espazioa eta erakustokiak kontratatzeke, eta 2008ko aurrekontuetatik 2497,77 euro, erakustokian arreta emateko langileak kontratatzeke).

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 26an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## **Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoko zuzendari titularren kontratuaren egoerari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Nafarroako Orkestra Sinfonikoko zuzendari titularren kontratuaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Nafarroako Orkestra Sinfonikoko zuzendari titularren kontratuaren egoerari buruz. Hona Viana-

ko Printzea Erakundea-Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Pablo Sarasate Fundazioari dagokio Nafarroako Orkestra Sinfonikoko zuzendari titularra kontratatzea. Fundazio hori entitate pribatua da, eta bere patronatuan dago Nafarroako Gobernua. Edonola ere, jakinarazten dizut Ernest Martínez Izquierdo jauna kontratatua dagoela Nafarroako Orkestra Sinfonikoko zuzendari titularra izateko 2012-2013 denboraldia amaitzen den arte (hau da, 2013ko uztailera arte). Bere kontratua berritzeko azken erabakia aho batez hartu zuen fundazioaren patronatuak 2007ko azaroan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 26an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## Galdera, Musikaren Hiria eraikitze lanen aurrekontuari eta amaierako kostuari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Musikaren Hiria eraikitze lanen aurrekontuari eta amaierako kostuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Obraren azkeneko kostua: 37.665.554,96 €

Hasierako proiektuaren aurrekontua igotzea eragin duten kontzeptuak:

Baldintza-orrian dagoen isolamenduei buruzko atalean, adierazten zen isolamendu akustikoak instalatuko zirela musika irakasteko espazio guztien zoruetan, sabaietan, fatxadetan eta barneko trenkadetan. Hala azalduko zen esleipen-hartzaileek proposaturiko eskaintzan; baina, halaber, eskaintzen zen akustikari buruzko azterlan zehatz bat egitea.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko laborategi batek egindako azterlanaren ondorioz, beharrezkotzat jo da isolamenduarekin zerikusia duten instalazioen kalitatea hobetzea; horrela, saihestuko da soinua zabaltzea, geletan nahiz entzunaretoan.

Era berean, nahiz eta baldintza-orrian sabaien isolamendua ezartzen zen, ez zen adierazten horrek behar duen akabera. Irtenbide logikoena da sabai aizunak aurreikustea, horietariko gehienak fonikoak; asmoa da altuerak murriztea, isolamenduak eta instalazioak ezkutatzea eta isolamendua hobetzea.

Baldintza-orrian adierazten zen leihoetan jarriko zela climalit 4+6+4, baina beira horien isolamendu akustikoa aztertu ondoren, ikusi da osagai hori ez dela nahikoa isolamendurako, eta bederatziz beira mota proposatzen dira, beiraz hornitu beharreko osagaiaren arabera. Beira aipagarrienek ondoko ezaugarriak dituzte:

- a) kamera akustikoduna 6+6,2/20/4+4,2
- b) kamera akustikoduna 3+3,2/20/3+3,2

c) kamera akustikoduna 6+6,1/20/4+4,1

d) eguzki-argia eta akustika kontrolatzeko kameraduna 6+6,2/20/4+4,2

e) eguzki-argia kontrolatzeko kameraduna 6+6,1/20/4+4,1

f) segurtasunerako beira laminarra 10+10,1

g) beira laminarra 5+5,1

h) beira laminarra 4+4,1

i) butiral zeharrargitsua

Behin osagai horiek aztertuta, uste dugu nabarmen hobetzen dela isolamendu akustikoa.

Proposatzen da airea berrizatzeko sistema bat jartzea, bai leihorik ez duten espazioetan, bai eta leihoak dituzten horietan, zaraten interferentziak saihesteko, kanpotik datozenak eta ikasgelen artekoak –esaterako, espazioak aireztatzeko asmoz horietako leihoak irekitzen direnean–. Izan ere, baldintza pleguan ez da halakorik aurreikusi eta nahitaezkotzat jotzen den zerbait da, kontuan izanik ikasgeletan irakatsiko diren ikasgaien ezaugarriak.

Baldintza-orrian adierazten da berokuntzaren instalazioak bete behar duela eraikinetako instalazio termikoei buruzko erregelamendua; gomendatzen da berokuntzaren eta ur beroaren instalazioak gas naturalaren bidezkoak izatea, eta proposatzen da berogailuak altzairuzko txapaz, txapazko panelez edo burdin urtuz eginikoak izatea, eta leihoen azpian kokatzea, horma-hobien antzekoetan.

Proposamen hori aztertu ostean, eta hori bat etor dadin lehentasunezko xedearekin –interferentzia akustikoak saihestea–, proposatu da klimatizazioa jartzea ikasgela gehienetan, sabai beroemaile eta hotz-emaileen bitartez, eta aire girotua jartzea ikasgelak ez diren gainerako espazioetan.

Hiru eraikinetako sotoetan espazio ezberdinak daude, eta asmoa da horietan ikasketarako eta interpretaziorako areto handiak kokatzea.

Proiektuan, solairu hori igotzearen ondorioz, sortuko dira egoera batzuk baldintza-orrian aurreikusi ez direnak, hala nola ondoko aretoei konponbide akustiko hobea eman behar izatea: Orkestra Sinfonikoaren egoitzaren interpretaziorako areto nagusiari eta entsegu aretoari, Kontserbatorio pro-

fesionalaren eraikineko abesbatza/orkestraren aretoari eta Goi Mailako Kontserbatorioko orkestra, abesbatza eta mugimendurako aretoei. Solairua igotzeak konponbide akustiko hobea dakar.

Ikasketarako eta interpretaziorako areto handietan akustika eta ikuspena optimizatzeko, egokitzat eta beharrezkotzat jo zen espazio horietako zutabe batzuk kentzea. Hona espazio horiek: Orkestra Sinfonikoaren entsegu aretoa, sotoko areto nagusia, ikasketarako gelak, Kontserbatorio Profesionaleko abesbatzaren aretoak, Hezkuntza Departamentuko aretoak eta Kultura Departamentuko aretoak. Izan ere, zutabe horiek erdian gertzen ziren eta ondo ikustea galarazten zuten.

Baldintza-orrian jasotzen zen igogailu bat jarriko zela, minusbaliatuentzako arkitektura oztopoak deuseztatzeko, eta karga-jasogailu bat ere ezarriko zela, musika-tresna handiak garraiatzeko.

Gune hori hiru eraikinek osatuko dute, estetiko ki integratuak egonen direnak; alabaina, eraikin horiek soilik aparkalekutik komunikatuak egonen dira, eta kontserbatorioetako ikasleak ezin izanen dira espazio horretara sartu. Araudia betetzeko, igogailu bat eta karga-jasogailu bat jarri dira eraikin bakoitzean.

Proposatu da garajeko sarrerari eta garajea osatuko duten espazioei behar bezalako altuera ematea, tamaina ertaineko kamioiek kargatu eta deskargatu ahal izateko; baina eman nahi zaien altuera ez dago aurreikusita baldintza-orrian. Asmoa da musika-tresnak eta orkestra inongo arazorik gabe garraiatu ahal izatea euria ari duenean.

Akustikari buruz eta zenbait aretori behar bezalako altuera emateari buruz aipatutakoaren ondorioz, sotoaren altuerak gainerako solairuena baino handiagoa behar du izan, eta, gainera, horri esker, hodi guztiak habeen azpitik pasa ahal izanen dira.

Gobernua dagoen energia murrizteko aholkularitza teknikoak eta Iberdrolarenak aholkatzen dute, gune horren tamaina dela-eta, kontratazio elektrikoa egitea tentsio ertaineko hornidurarekin, transformadoreak jarritz.

Aginduzko kontsulta egin ostean, Iberdrolak erabaki du korrante hori emanen duen gunea jarriko duela liburutegi berria izanen denaren eta gune horren artean. Era berean, hantxe jarriko da sorospen postua. Eskaera hori errentagarria da; izan ere epe luzera ekonomizatzen da kw/h kostua, eta horrek eragin du dotazio berri bat izatea: transformazio zentroa, baldintza-orrian aurreikusita ez zegoena.

Gerora, beharrezkoa izan da proiektua egokitztea eraikuntza-kode tekniko berrira.

Aurrekontuaren laburpena erantsi da, kontusailka banatua.

Iruñean, 2008ko martxoaren 26an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-08/PES-00070 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

## **Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartu behar dituen nazioarteko ikasle-trukeak sustatzeko goi mailako musika-irakaskuntzaren arloan.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartu behar dituen nazioarteko ikasle-trukeak sustatzeko goi mailako musika-irakaskuntzaren arloan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Duela gutxi hasi dira Musikako Goi Mailako Kontserbatorioak parte hartzen ikasleak trukatzeko jardueretan Europa mailan –LOGSEa hezkuntza maila horri aplikatu ondoren–, eta oraindik ere, beren lehen urratsak ari dira egiten.

Beste autonomia erkidego batzuetako goi mailako kontserbatorioek dagoeneko ekin diote bide horri. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak informazio hori helarazi dio hainbatetan Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioari, ondoko helburuarekin: batetik, jakinaraztea goi mailako kontserbatorioek, goi mailako ikasketak eskaintzen dituzten erakundeak diren aldetik, aukera efektiboa dutela programa horietan parte hartzeko, eta bestetik, musika-alarreko prestakuntzarako bide berriak sustatzea eta ahalbidetzea Foru Komunitateko ikasleentzat.

Hala ere, asko dira hezkuntza komunitate osoan egin behar diren ahaleginak eta eginkizunak ikasketen plan berri bat ezartzeko prozesuan; hori da goi mailako musika ikasketen kasua LOGSEren hezkuntza sistemaren arabera –hori ondoko ikasturteen artean eraman zen aurrera: 2002/2003 eta 2005/2006–. Hori horrela, ezin direnez gai guztiak aldi berean landu, nahiz eta horien bidez erdietsi nahi diren helburuak interesgarriak eta egokiak izan, ez da harrizkekoa lehentasuna ematea presa handiagoa duten gaiei, ikastetxeak funtzionamendu egokia lor dezan eta hezkuntza-erakundeak ere egokia izan dadin musikako ikasleentzat. Horrela, alde batera uzten dira hainbesteko

lehentasunik ez duten gaiak, eta etorkizun hurbil batean helduko zaie.

Hezkuntza Departamentuari ardura zaio, logikoa denez, musikako goi mailako ikasketak egiten dituzten ikasleei eskaintzarik anitzena eta osatuen ematea. Hori horrela, ikastetxeari lagundu nahi dio prozesu horretan, eta horretarako ikasturte honetan zehar hainbat elkarriketa izan ditu Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioarekin, eta adierazi die zein den jarraitu beharreko bidea ikasleak trukatzeko programa horiek ahalbidetzeko izapideak hasteko, 2009/2010 ikasturtetik aurrera.

Helburu hori aurrera eramateko lehen fasea da ondoko baldintza betetzea: ikastetxeak Erasmus Gutuna izan behar du, horrek aukera emanen baitio truke horietan egoitza gisa parte hartzeko. Horretarako, ikastetxeak eskaera hori prestatua izanen du dagokion epea hasten denerako; aurreikusita dago epe hori 2008ko udazkenean hastea.

Behin gaikuntza hori lortuta, ikastetxeak parte hartzeko eskaria egin ahal izanen du eta dirulaguntzak jaso, ikasleak edo irakasleak haien homologo europarrekin trukatzeko. Deialdi horiek, normalean, urte amaieran argitaratzen dira, eta aurkezteko epea hurrengo urteko otsaila edo martxora arte izaten da, kasuen arabera.

Bestalde, lana aurreratzen joateko eta deialdi hori egin baino lehen, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa harremanetan jarriko da Espainiako beste goi mailako kontserbatorio batzuekin, mota horretako trukeak jadanik egiten ari direnekin, pixka bat gehiago ezagutzeko zein den programa horren barne funtzionamendua eta kudeaketa, eta etorkizunean trukeak egite aldera harremanak Europako zein ikastetxerekin izan ditzaketen ikusi eta behar diren aurretiazko izapideak egiteko.

Hezkuntza Departamentuak, bere aldetik, jarraipen bat egiten dio prozesu horri, programa abiaraztea ahal den neurrian babesteko eta errazteko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 26an.

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, Nafarroan musika ikasketen beharriaz erantzuteko organigrama egokitzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroan musika ikasketen beharriaz erantzuteko organigrama egokitzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Hezkuntza Departamentuak aspaldidanik dauzka musika irakaskuntzan espezializatuak diren langileak, eta beren lana hezkuntza administrazioan bertan egiten dute. Haien helburua da erantzuna ematea Nafarroako Foru Komunitatean irakaskuntza horien antolamenduaren eta funtzionamenduaren alorretan sortzen diren beharrei.

Lanpostuaren izena eta bertako langileak aldatuz joan dira urtez urte, Hezkuntza Departamentuaren antolamendu-egiturari eragin dioten gorabeheren arabera. Hasiera batean, musika irakaskuntzen aholkulari bat zegoen. Gero, Musika Irakaskuntzen Unitate Teknikoa sortu zen, geroago Arte Irakaskuntzen Unitate Tekniko bihurtuko zena. Unitate tekniko horrek bere izena aldatu eta "Arte Irakaskuntzaren Bulegoa" jarri zuen. Orain dela gutxi, azken hauteskunde autonomikoetan

Hezkuntza Departamentua birmoldatu eta berregituratu ostean, bulego hori aldatu eta Arte Ikasketen Atala bihurtu da, eta Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiaren mende dago.

Azken aldaketa horren bidez, Hezkuntza Departamentuaren asmoa da arte ikasketei kokapen hobea ematea departamentuaren barnean, ahalbidetuz, batetik, arte ikasketei beharrezkoa den autonomia ematea araubide orokorreko ikasketei dagokienez, eta bestetik, koordinazio bideak ezartzen laguntzea hezkuntza maila bereko beste irakaskuntza batzuekin. Hona horren guztiaren arrazoiak: arte ikasketak sustatzea hezkuntza sistemaren barnean, erabiltzaileei arreta hobea eman ahal izateko eta ikasketak horiek egungo nafar gizartearen presentzia handiagoa izan dezaten.

Hasiera batean, Arte Ikasketen Atalak bere jardunari ekin dio atalburua besterik izan gabe; baina Hezkuntza Departamentuak jakin badaki ikasketak horien alorrean garatu beharrezko zereginak asko eta askotarikoak direla, bai eta hezkuntza sistema berrira egokitzeko prozesutik eratortzen direnak ere, eta horregatik asmoa du atal horretako langileen kopurua ahal den azkarren handitzeko. Hori horrela, departamentuaren asmoa da horrelako proiektuei nahiz beste batzuei baldintzarik onenetan aurre egitea legegintzaren bidez.

Iruñean, 2008ko martxoaren 26an.

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, jakiteko Nafarroan noiz garatuko den musikako goi mailako ikasketen curriculuma.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroan noiz garatuko den musikako goi mailako ikasketen curriculuma.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Musikako goi mailako ikasketak, egun indarrean dagoen hezkuntza sistemaren arabera –hori arautzen du Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Legeak–, abian dira Nafarroako Foru Komunitatean 2002/2003 ikasturtetik; orduantxe hasi ziren ikasketa horiek pixkanaka ezartzen. 2005/2006 ikasturtetik aurrera, ikasketa horien eskaintza erabatekoa izan da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan; beraz, interesatuek ikasturte guztiak egin ditzakete ezarritako espezialitate guztietan, eta Musikako Goi Mailako titulua lor dezakete dagokien espezialitatean.

Orain arte, bi ikasle-promoziok amaitu dituzte musikako goi mailako ikasketak LOGSEri jarraikiz, eta 2007/2008 ikasturte honetan, hirugarren promozioa ikasketa horien azken maila egiten ari da.

Ikasketa horiek ezarri zirenetik, Hezkuntza Departamentuak abian jarri du autonomia mailan dagokion hezkuntza-alarreko beharrezko araudia, Nafarroako Foru Komunitatean musikako goi mailako ikasketek funtzionamendu ona izan dezaten. Ildo horretatik, ikasketa-plan hori egokiro aurrera eraman dadin, zenbait arau garatu dira, besteak beste: ezarpena, curriculuma, sarrera-probak, eskuragarri dauden tokiak, ebaluazioa, hautazkoak, antolamendua eta jarduna arautzeko jarraibideak, kontserbatorio profesionala eta goi mailakoa

efektiboki bereiztea eta abar. Neurri horiekin batera, aldian-aldian ikasketa-planaren garapen egokirako beharrezkoak izan diren jarraibideak ere egin dira.

Hala ere, adierazi behar da hezkuntza maila horrek, alor askotan, oraindik ere ez duela oinarritzko araudi bat estatu mailan –nahiz eta hezkuntza maila horren araudia aspaldi ezarri zen, hezkuntzari buruzko legea 1990ekoa baita–; horregatik, gerora autonomia erkidegoetan alor horiek arautzeko arazoak edo mugak egon ohi dira. Gauza bera gertatzen da, esaterako, beren ikasketak autonomia erkidego batean hasi eta beste batean jarraitu nahi dituzten ikasleekin.

Egoera horren aurrean, eta estatuko legedi egokia garatzen den bitartean, Nafarroako Hezkuntza Departamentuak abian jarri ditu aldian aldian neurri batzuk, ikasketa-plan hori ahalik eta baldintzarik onenetan gara dadin trantsiziozko aldi honetan, hala langileen alorrean nola ikasketen antolamenduarenean.

Uneotan, behin ikasketa horiek ukitzen dituen hezkuntzaren alorreko araudi berria argitaratua, alegia, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Legea, ez dirudi Ministerioak asmorik izaneren duenik aurreko araudia garatzeko –hori da egun indarrean dagoena, LOGSEa–, baizik eta sistema berria garatuko du LOEri, Hezkuntzari buruzko legeari, jarraikiz.

Ildo horretatik, behin Hezkuntza Ministerioak musikako goi mailako ikasketak ukituko dituen araudi berriak argitaratzen dituztenean, Nafarroako Hezkuntza Departamentuak eman beharrezko pausoak emanen ditu, beharrezkoa balitz egungo ikasketa-plana egokitzeko, edo garapen autonomikoa osatzeko (hezkuntza sistema berrira egokitzeko eta Nafarroako Foru Komunitatean, Hezkuntzaren legeari jarraikiz, musikako goi mailako arte irakaskuntzak ezartzeko).

Iruñean, 2008ko martxoaren 26an.

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, jakiteko zer egin behar duen Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan musikako goi mailako ikasketak ezartzeko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin behar duen Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan musikako goi mailako ikasketak ezartzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin zuen jakiteko Nafarroan noiz garatuko den musikako goi mailako ikasketen curriculum, eta erantzuna honakoa izan zen: musikako goi mailako ikasketak erabat eta behin betikoz 2005/2006 ikasturtean ezarri ziren Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan, egun indarrean dagoen legediari jarraikiz –Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa– eta ondoko espezialitateetan:

Akordeoa, Harpa, Kantua, Klarineta, Klabea, Konposizioa, Kontrabaxua, Fagota, Moko-txirula, Zeharkako Txirula, Gitarra, musika-tresna tradizionalak eta herrikoiak (Txistua), Jazza, Musikologia, Oboea, Organoa, Pedagogia: hautazko “Musika Hizkuntzaren eta Hezkuntzaren pedagogia”, Pedagogia: hautazko “Kantuaren eta musika-tresnen pedagogia”, Perkusioa, Pianoa, Saxofoia, Tronboia, Tronpa, Tronpeta, Tuba, Biola, Biolina eta Biolontxelo.

Hezkuntza Departamentuak 2002/2003 ikasturtean ekin zion ikasketa-plan hori ezartzeari, eta garatu du plan hori Nafarroako Foru Komunitatean abian jartzeko beharrezkoa den araudia: ezarpena, curriculum, sarrera-probak, eskuragarri dauden tokiak, ebaluazioa, hautazkoak, antolamendua eta jarduna arautzeko jarraibideak, kontserbatorio profesionalaren eta goi mailakoa-

ren bereizketa efektiboa, bai eta puntualki hartutako beste zenbait jarraibide ere.

Musikako goi mailako ikasketei eragiten dien hezkuntzari buruzko lege berri bat argitaratzearen ondorioz –Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, LOE–, aurki egokituko da egungo ikasketa-plana ikasketen antolaketa berri-  
ra.

Hezkuntza sistemaren antolamendu berria aplikatzeko egutegia ezartzen duen ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretuaren 23. artikuluan xedatzen denez, Gobernuak definitu beharko ditu goi mailako ikasketen oinarriko egitura eta edukia; hori horrela, lege hori pixkanaka ezarri joanen da, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarrian ezarritako epean; hau da, bost urteko epean, legea indarrean sartzten denetik. Hori guztia Gobernuak egin beharko du, aldeztu aurretik autonomia erkidegoei eta Arte Irakaskuntzen Kontseilu Nagusiari galdetu ostean –hori martxoaren 16ko 365/2007 Errege Dekretuan arautu eta 2007ko urriaren 3an eratu zen; egun abian da, bere jardura garatzen–.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, Ministerioak garatzen duen araudiaren arabera, beharrezkoak diren ekintzak eramanen ditu aurrera Nafarroako Foru Komunitatean LOGSEaren musikako goi mailako ikasketen plana egokitzeko LOEk ezarritako musikako goi mailako ikasketetara, ikasketa horiei aplikatzen zaien araudiarekin bat.

Goi mailako ikasketetan musikaz gain beste ikasketa batzuk ere sartzten direnez, Arte Irakaskuntzen Kontseilu Nagusiak bere ibilbidea hasi du arte dramatikoaren oinarriko irakaskuntzaren egitura eta edukiak aztertuz. Uneotan, oraindik ez dakigu noiz jorratuko duen Ministerioak musikako goi mailako irakaskuntzen tratamendua lege-esparru berrian.

Iruñean, 2008ko martxoaren 26an.

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea



## **Galdera, jakiteko zer departamentuk sustatu duen Nafarroako nazioarteko plana.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer departamentuk sustatu duen Nafarroako nazioarteko plana.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko martxoaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako nazioarteko planari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak sustatu du Nafarroako nazioarteko plana, Nazioarteko Garapeneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez. Plan hori globala da, eta bilduko ditu administrazioko zenbait alorrek egin beharrekoak diren ekin-tzak. Hori horrela, ondotik datozenak ari dira plan horretan lanean: Ekonomia eta Ogasun Departamentuetako Zuzendaritza Nagusiak eta Zerbitzuak, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua eta Hezkuntza Departamentua. Halaber, kanpoko adituen eta laguntzaileen ekarpena ere izanen du, bai eta Foru Komunitateko eragile ekonomiko eta sozialen parte-hartzea ere.

Behin plana prestatua, Nafarroako Gobernuak horren edukia aurkeztuko du Legebiltzarrean.

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Kutzaren arteko lankidetzaren hitzarmenari buruzkoa, Nafarroaren Egunaren ospakizunen kariatara antolatu ziren Gazteen Jaialdia eta Haurren Jaialdia direla eta.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Kutzaren arteko lankidetzaren hitzarmenari buruzkoa, Nafarroaren Egunaren ospakizunen kariatara antolatu ziren Gazteen Jaialdia eta Haurren Jaialdia direla eta.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko martxoaren 14ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroaren Egunaren kariatara egindako Gazteen Jaialdiari eta Haurren Jaialdiari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak 190.000 euro ordaindu zizkion Nafarroako Kutzari, Gazteen Jaialdiaren eta Haurren Jaialdiaren ospakizunetarako, hala adostu baitzuen erakunde horrekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenean.

Dirusarrerei dagokienez, ondokoak izan dira kopuru konputagarriak, hitzarmenean ezarritako kontzeptuekin bat:

	Sarrerren salmenta	Nafarroako Kutxa
Gazteen Jaialdia Iruña	121.574,97 €	9.273 €
Haurren Jaialdia Iruña	13.176,02 €	5.100 €
Haurren Jaialdia Tuter	5.520,85 €	2.200 €
Haurren Jaialdia Lizarra	7.382,18 €	3.300 €
Guztira (BEZ gabe)	147.654,02 €	19.873 €
BEZ (%7):	10.335,78 €	
Guztira	157.989,80 €	

Azkenik, Nafarroako Gobernuari 270 gonbidapen eman zitzaizkion Gazteen Jaialdirako, eta banatu egin ziren Gobernuako departamentuen artean eta beste erakunde batzuen artean, Iruñeko Udala kasu. Gainera, Nafarroako Parlamentuari

76 gonbidapen eman zitzaizkion, bi igorpenen bidez.

Publizitateari dagokionez, Nafarroako Gobernuak 46.253,75 euro bideratu zituen jaialdi horiek iragartzeko. Hona zerrenda:

#### Gazteen Jaialdia

Diario de Navarra	3 iragarki
Suplemento Intendencias	1 iragarki
ADN	1 iragarki
Diario de Noticias	2 iragarki
El Bolo Feroz	1 iragarki
El Periódico Universitario	1 iragarki
Europa FM	4 iragarki egunean, azaroaren 15etik abenduaren 2ra
40 principales	6 iragarki egunean, azaroaren 15etik abenduaren 2ra
Cadena 100	4 iragarki egunean, azaroaren 15etik abenduaren 2ra

#### Haurren Jaialdia

Diario de Navarra	4 iragarki
Diario de Noticias	2 iragarki
Onda Cero	3 iragarki egunean, azaroaren 16tik abenduaren 2ra
Cadena SER	5 iragarki egunean, azaroaren 16tik abenduaren 2ra
Cadena COPE	3 iragarki egunean, azaroaren 16tik abenduaren 2ra
Kiss FM	3 iragarki egunean, azaroaren 16tik abenduaren 2ra

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoan

Nafarroako Gobernuko eledun eta Erakundeetako Harremanetarako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Aresoko udalerrian gatz-siloen parean dagoen informazio-panela euskaraz ez jartzeko arrazoiei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Aresoko udalerrian gatz-siloen parean dagoen informazio-panela euskaraz ez jartzeko arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko martxoaren 14ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zergatik jarri den gaztelania hutsean informazio-panel bat. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Leitzatik Iruñerako A-15 autobien sarbidean, Aresoko udalerrian, "No retirar sal" dioen informa-

zio-panela jarri da gatz-siloen parean. Panel hori jarri zuen enpresak "A-15ean (Leitzarango autobia), A-1ean (Iparraldeko autobia) eta A-10ean (Sakanako autobia) elurra kentzea eta/edo urgarririk zabaltzea, 2005-2008" izeneko kontratua sinatu zuen, eta informazio-panel hori jarri zuen gatz babesteko.

Jakina, kartel hori ez dago jasota Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren I. eranskinean –bertan adierazten da zein diren seinale ofizialak edo seinalizazio-panelak–.

Hala ere, elurra kentzeaz arduratzen den enpresa horri agindu zaio informazio-panel hori euskaraz jartzeko, eta datozen egunotan egingen du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 25ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

---

## **Galdera, Uxueko hirigunetik gertu dauden lursailak Uxueko errepidea eraikitzean egiten diren zelaitze-lanetatik datorren lurrarekin betetzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak duen asmoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Uxueko hirigunetik gertu dauden lursailak Uxueko errepidea eraikitzean egiten diren zelaitze-lanetatik datorren lurrarekin betetzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak duen asmoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko martxoaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Uxue inguruko lurrak berdindu eta lautzeari buruz, udalerririk horretara iristeko egiten ari diren obrak direla-eta eragindako lur mugimenduak aprobetxatzeko. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua NA-1030 errepidea egokitzeko eta hobetzeko lanak egiten ari da, Uxuera sartzeko tartean. Helburua da egungo errepidearen ezaugarri geo-

metrikoak hobetzea, oineko eta altxaerako traza-dura hobetuz, eta galtzada 10 metrora zabalduz.

Jarduera ondoko tartean egiten ari da: NA-132 (Lizarra-Tafalla-Zangoza) errepidean dagoen bidegurutzearen eta Uxueko hirigunearen artean.

Eskualdeko ezaugarri topografikoek batetik, eta 2007ko martxoan izandako luizi naturalek bestetik, deskonpentsazio bat eragin dute lur mugimenduan, eta 250.000 m<sup>3</sup> material eraman behar izan da zabortegira.

Horretarako, proiektuan aurreikusi ziren zabortegiak erabiltzen ari dira, eta gainera, beharrezkoa izan da beste zabortegi batzuk ere kudeatzea, aipaturiko soberakin horiek eraman ahal izateko. Nabarmentzekoa da “El Cruceroren” inguruetan dagoena; aurreikusita dago bertan 200.000 m inguru botatzea.

Proiektua jendaurrean jartzeko fasean –fase horretan toki entitateek nahiz banakoek alegazioak, iradokizunak edo eskaerak aurkez diezazkio-kete proiektuari– ez zen proposamen bat ere jaso Uxueko hiri ingurunean zelaitzeak egiteko aukera aipatzen zuenik, gerora aparkaleku gisa erabiltze

aldera; hori horrela, proiektuan ez zen ezer ere aurreikusi ildo horretatik.

Bestalde, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentu honek ez du eskumenik mota horretako jarduerak egiteko. Beste departamentu batzuei dagokie hori egitea, edo kasua bada, Uxueko Udalari.

Hala ere, “El Cruceroren” inguruetan sortuko den zabortegiaren azalera 12.000 m<sup>2</sup>-koa izanen da (zabortegi hori hirigunetik 700 bat metrora dago), eta eremu hori aparkaleku gisa erabil liteke, izan ere errepidera bikain lotuta geratuko da, sartzeko eta ateratzeko bideekin. Azalera hori funtzionala izan dadin, beharrezkoa izanen litzateke eremu hori prestatzea, horretarako zabor-legarra edo antzeko material batez egindako kapa bat zantpatuz eta zabalduz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 26an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, teleordainketa sistemak ezartzearekin eta Audenasak Nafarroako Kutxarekin eta Nafarroako Rural Kutxarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du teleordainketa sistemak ezartzearekin eta Audenasak Nafarroako Kutxarekin eta Nafarroako Rural Kutxarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa jaunak

galdera egin du Audenasak aplikatutako beherapen berriei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

a) Audenasaren txartela duten pertsonak beren autoan OBE gailu elektronikoa instalatzen badute, beherapenak izanen dituzte –hala onartu zen Nafarroako Gobernuak eta Audenasak joan den martxoaren 14an sinatu zuten hitzarmenean–, OBE gailu elektronikoa edozein finantza-entitate-tan eskuratuta ere.

b) Audenasa ez denez enpresa publiko bat, ezin dira eman enpresa horrek finantza-entitateekin sinatu dituen hitzarmenen kopiak.

c) Arrazoi berberetatik, Gobernuak ezin du alde aurretik esan zein diren Audenasa enpresak beste finantza-entitate batzuekin sinatutako dituen edo sinatutako ez dituen hitzarmenak.

d) Autobide-enpresen arteko hitzarmenei dagokienez, 2003ko urtarrilaren 14an, ASETAK sustatuta (Asociación de Sociedades Españolas Concesionarias de Autopistas, Túneles y Vías de Peaje), lankidetzan hitzarmen bat sinatu zen autobideen emakida-hartzaile diren sozietateen artean, teleordainketa sistema ezartzeko eta ustiatzeko Espainia osoan, CESARE eta PISTA proiektuetan ageri diren zehaztapenei jarraikiz. Ordura arte, ez zegoen ordainbide komun bat (banku-txartelak eta garraio-txartelak salbu) autopista sarerako, nahiz eta enpresa emakida-hartzaile batzuek –horien artean Audenasa– bitariko akordioak zituzten

beren txartelak onartzeko. Audenasak mantendu egin du horietariko akordioaren bat azken urteotan, teleordainketa sistemarik ez zegoelako; baina, behin teleordainketa sistema ezarrita, hitzarmen horiek ez daude indarrean, eta 2003tik aurrera ezarritako sisteman sartu dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 27an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## Galdera, “Erregistro Zibila linean” izeneko programari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du “Erregistro Zibila linean” izeneko programari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du “Erregistro zibila linean” izeneko programarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Programan sartzeko eskaria egin duten udalerriak zein eta zenbat diren erantzun baino lehen, argitu behar dut Nafarroako toki entitate orok aukera duela, nahi izanez gero, “Erregistro zibila linean” izeneko programan sartzeko.

Hori horrela, eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin sinatutako akordioaren ondorioz, aurtengo martxoan, apirilean eta maiatzean hitzarmen bat sinatuko da Nafarroan erregistro zibil delegatuak dituzten 267 udalerriekin. Horretarako, horietako batzuei jadanik gonbidapena luza-

tu zaie, eta gauza bera egingen da gainerakoekin, mailaz maila.

2.- Xede horretara bideratutako kontusailen egoerari dagokionez, gogorarazi behar da baimendutako proiektuaren kostua 901.760 eurokoa izan zela. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak 541.056 euro emanen ditu, eta gainerakoa, 360.704 euro, Red.es estatuko entitate publikoak jarriko du.

Hona Nafarroako Gobernuak urte bakoitzean egindako inbertsioa:

2007. urtean: Baimendutako gastua: 180.000 euro. Horietatik 175.043,48 euro bete ziren, eta erabili ziren beharrezkoak ziren azpiegiturak ezartzeko, Nafarroako erregistro zibil delegatuak konekta zitezten.

2008. urtean: Baimendutako gastua: 361.056 euro.

3.- Horren ondorioz, eta toki entitate bakoitzarentzako finantzaketaren azalpen zehatzari dagokionez, adierazi behar da, gorago azaldutakoarekin bat, ezin izanen dela jakin zenbat udalerririk sartu diren programan harik eta toki entitate bakoitzarekin hitzarmena sinatzen den arte. Hala ere, ondokoa aurreratu daiteke: sinatzeko aukera inplikaturako 267 udalerriei eskainiko zaienez, onartuko dira hitzarmena sinatzen duten entitateen eskaera guztiak.

Halaber, orduantxe jakinen da zenbat toki entitateri emanen zaien “Infogeg” aplikazioa; hitzarmena sinatzen duten guztiei emanen zaie.

4.- Aipaturiko hitzarmenari dagokionez, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin sinatu zen, eta bere xedea da lineako erregistro zibilaren hedapena sustatzea Nafarroako toki entitateetan, udal administrazioetik herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu publikoak hobetzeko. Hori horrela, toki entitate horiei emanen zaie konexio segurua, ekipamendu informatikoa eta "Inforeg" aplikazioa behar bezala erabiltzeko prestakuntza. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak konpromisoa hartu du bere eskura dauden baliabide guztiak erabiltzeko, Nafarroako udalak hitzarmen horretara atxikitzea sustatze aldera.

Horren ondorioz, aurreikus daiteke hitzarmena oso eraginkorra izanen dela, erabateko administrazio elektronikora eramanez gaituzten helburuak betetzeari dagokionez.

5.- "Inforeg" tresna baino lehenagokoak diren erregistro liburuak digitalizatzeari dagokionez, ohartarazi behar da jarduera hori sartzen dela Avanza planean, eta Red.es estatuko entitateari dagokiola jarduera hori aurrera eramatea. Oraindik ez dakigu zein izanen den jardueren egutegi zehatza. Hala ere, Foru Komunitateko administrazioa harremanetan dago entitate horrekin, beharrezkoa den guztian elkarrekin jarduteko, eta horrela, etorkizun ez oso urrun batean, Nafarroako Erregistro Zibileko prozesuen erabateko telematizazioaren emaitza guztia asegarria izan dadin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 18an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:  
Javier Caballero Martínez

---

## **Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeako proiektua berregokitzearen kostuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Musikaren Hiria eraikitzeako proiektua berregokitzearen kostuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko apirilaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Oraingoan, ez dago galdera horri erantzuterik; izan ere oraindik erabilerak planifikatzeko fasean gaude, proiektu hori egin aurretik.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Zerbitzuburua: Javier Arricibita Antoñanzas

## **Galdera, balizko generoen berdintasun plana abian jartzeko dagoen aurrekontuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du balizko generoen berdintasun plana abian jartzeko dagoen aurrekontuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko martxoaren 14ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko apirilaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maria Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin dio Parlamentuko Mahaiari. Hona erantzuna:

1. Berdintasunerako Planaren aplikazio esparruari dagokionez, aplikatuko da Hezkuntza Departamentuak Nafarroan dituen eskumen-esparruetan: ikastetxeetan (publikoak eta itunduak) eta departamentuan bertan.

Lanerako eremuak aurretik aipaturiko horiek izanen dira.

2. Argitaletxeak, komunikabideak eta gainerako gizarte-eragileak tartean sartzeari dagokionez:

a) Oraingoz ez dago asmorik argitaletxeak tartean sartzeko. Betiere, testuak errege dekretu eta foru dekretuen bidez ezarritako curriculumei jarraituz egokitu beharko dira.

b) Komunikabideei eta beste gizarte-eragileei dagokienez, Nafarroako Berdintasunerako Institutuentzat lehentasunezkoa da alor horietan esku hartzea. Hezkuntza Departamentuak era koordinatuan dihardu Institutu horrekin.

3. Asmoa da Berdintasunerako Plana 2008ko azken hiruhilekorako onartzea.

4. Aurrekontua:

Berdintasunaren Atalaren aurrekontua 30.000 eurokoa da, 2008. urterako; oraingoz, diru-kopuru hori laguntza teknikora dago bideratua.

Berdintasunerako Plana osatuko duten ekin-tzen aurrekontua egingen da, eta gainera zehaztuko da zein izanen den aurrekontu hori bere gain hartuko duen zerbitzua edo atala.

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

**Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostu horietako batek betekizun gisa du euskara jakitea.**

**Lanpostu bat hutsik gelditu dela adieraztea eta beste lanpostua beteko duenaren izendapen**

Lanpostu bat hutsik gelditu dela adieraztea eta beste lanpostua beteko duenaren izendapena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Amaitu da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts betetzeko lekualdatze-lehiaketa; lanpostu horietako batek betekizun gisa zuen euskara jakitea. Deialdia argitaratu zen 2008ko urtarrilaren 23ko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2008ko urtarrilaren 3ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Ikusirik epaimahai kalifikatzaileak igorritako zerrenda, lehiaketa hori gainditu dutenena, deialdiko 9.2 oinarriarekin bat, honakoa ERABAKI DA:

**1.** Hutsik uztea euskara titulu ofiziala izatea eskatzen zuen administrari lanpostua.

**2.** María del Carmen Borda Olagüe andrea Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatzea, administrari hain zuzen, administrarien kidegoan, eta Liburutegi, Artxibo eta Dokumentazio Zerbitzuan dagoen lanpostu hutsa esleitzea.

**3.** Ezartzea interesdunak erabaki hau jakinarazten zaionetik hamar egun naturaleko epea izan duela lanpostua betetzeko.

**4.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko uztailaren 15ean.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

<p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b></p> <p><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urtebete ..... 47,00 euro</p> <p>Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »</p> <p>Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »</p>	<p><b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b></p> <p><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b></p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Navas de Tolosa, 1</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--	--